



IÑAKIEIZMENDI

EKAINAK 20

HAUR ETA GAZTEEN HIZKUNTZA-SOZIALIZAZIOA: GURASOENGAN ERAGITETIK GURASOAK ERAGILE IZATERA

Euskararen transmisioaren gaiaren inguruan lan handia egin da azken urteetan. Hainbat Udalek jarri dituzte abian transmisio programak eta ikastetxeetan ere heldu izan zaio gai horri.

Gehienetan bidea gurasoengan eragitea izan da: gurasoek euskararekiko jarrera aktiboak izatea seme-alabengan eragitera begira. Azken urteetan beste bide bat ere indartzen ari da: transmisioaren gaiarekin arduratuta dauden gurasoak bildu eta modu antolatu batean eragile izan hastea.

Saio honetan bi arlo horiek ikusiko dira: gurasoengan eragitea eta gurasoak eragile izatea.

Gurasoengan eragitera begira Udalek eta ikastetxeek abian jarritako planen ezaugarriak eta hainbat adibide erakutsiko dira: gurasoei nolako mezuak ematen zaizkien, guraso tipologiaren arabera mezu horiek nola egokitzen diren, gurasoen kezka zeintzuk diren eta horiei zer erantzun ematen zaien, eta nolako tresnak sortu eta eskaintzen zaizkien gurasoei.

Gurasoak eragile izatera begira berriz, horren inguruan izandako esperientziak aurkeztuko dira: plangintzek nolako ezaugarriak dituzten, zein oinarri eta helburuekin lan egiten den, orain arteko esperientzietan zer ikusi den, eta abar. Hau da: guraso talde bat antolatu eta lanean hasten bada, helburu eta oinarri batzuen arabera lan egitea garrantzitsua da, bestela norabide argirik gabeko ekintza batzuk antolatuko baitira. Plangintza horiek, noski, oinarri antzekoak izan arren ezaugarri oso ezberdinak izango dituzte lekuaren arabera (testuinguru euskalduna edo erdalduna den). Horren inguruan azalpenak emango dira eta hainbat adibide erakutsiko dira.

Azkenik, beste bi ideia ere aipatuko dira: eragileak elkarlanean aritzea eta haurrak/gazteak eragile izatea.

Hiru eragilerentzat (gutxienez) gai garrantzitsua da transmisioarena: Udalak, ikastetxeak eta euskara elkarteak. Hau da, erakunde horiek euskararen erabilerarekin eta hizkuntza-sozializazioarekin arduratuta daude eta eragin nahi izaten dute. Zenbat herritan eragileen arteko elkarlana bideratu izan da. Horren inguruko adibide bat aurkeztuko da.

Haurren eta gazteen hizkuntza-sozializazioaz ari gara, eta beraz, batez ere beraiengan eragiteari buruz. Baina, badaude aukerak sozializazio bide horretan beraien gurasoengan eragiteko. Ikastetxeetan, adibidez, landu izan dira horrelako esperientziak. Horren inguruko adibideak aurkeztuko dira.